



## IKASGELETAN IKERKETA HELBURUEKIN EA IKASLEEN IRUDIAK HAR DAITEZKEEN GALDETUZ EUSKO JAURLARITZAKO XXXXX SAILAK EGUIN DUEN KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA.

### AURREKARIAK

**LEHENENGOA:** 2012eko Urtarrilaren 11n Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, goian adierazitako gaiari buruz.

**BIGARRENA:** Kontsulta-idazkiak honakoa zioen:

*“XXXXX ikerketa bat egingo du jakiteko zein diren ikastetxeen balio erantsiarekin lotutako aldagaiak ikastetxeen lagin baten bidez.*

*Pentsatu da aukera bat izan daitekeela ikerketaren fase bat kamera bidez egindako grabaketa bat izatea, hau da, ikastetxe horietako irakasle batzuek ematen dituzten eskolak grabatzea; beti ere ikastetxeetako zuzendaritzaren eta irakasleen baimenarekin.*

*Auzia ikasleei egin beharreko grabazioei buruz da.*

*Irakasleen eta ikasleen arteko hartu emana egiaztatzeko, komenigarria litzateke ikerketa taldeko kideek ikusi ahal izatea irudiak oso-osorik. Beharrezkoa balitz, ikasleen aurpegiak ezkutatuko lirateke programa informatiko baten bidez, aurpegiak ez ezagutzeko.*

*Grabazioetako materialak ikerketa helburuarekin bakarrik erabiliko lirateke, eta bakar-bakarrik ikerketa taldekoek eskuratu eta ikusi ahal izango lituzkete.*

*Ondorioz, honako alderdiei buruzko legezketasun irizpena behar dugu:*

- a) Ikasleen irudiak grabatuz gero, esandako helburuarekin, nahikoa da ikastetxeak familiaN horren berri ematea eta ikerketa zertarako den azaltzea, banan banako baimen beharrik gabe? ala baimena familia guztiei eskatu behar zaie banan-banan, eta familiek baimena eman behar dute? Erantzuna baiezkoa bada, agiriak zer jaso behar du?*
- b) Irudiak aurpegiak ezkutatua daudela grabatzen badira, nahikoa da familiei jakinarazita? Familiek uko egi ahal diote parte hartzeari?*



**HIRUGARRENA:** Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”*

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

## KONTUAN HARTZEKOAK

### I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak aztertu behar duen alderdi garrantzitsuen da ea ikasgelan dauden bitartean ikasleei, ikerketa bat egiteko, grabazioak egitea ondo ezkontzen den datu babesaren araudiarekin.

DBLOren 3. artikulua a) idatz-zatian dago jasota zer diren datu pertsonalak:

*“Pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri buruzko edozein informazio”.*

DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 errege Dekretuaren 5.1 f) artikulua dio datu pertsonala dela “Identifikatutako edo identifikatzeko moduko pertsona fisikoei buruzko informazioa, dela zenbaki bidezkoa, alfabetikoa, grafikoa, fotografikoa, akustikoa edo beste era batekoa”.

3. artikuluko c) idatz-zatian dago definituta zer den datu-tratamendua:

*“Automatizatutako edo automatizatu gabeko eragiketa eta prozedura teknikoak, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzietatik ateratako datuak biltzea, grabatzea, gordetzea, prestatzea, eraldatzea, blokeatzea, ezerezteia eta lagatzea ahalbidetzen dutenak”.*

Datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubideak datu-tratamendu bat egotea eskatzen du, datu-tratamendurik ez badago ez dagoelako arazorik. Datu-tratamendua zer den ikusi eta gero, esan behar da kirol instalazioetan dauden pertsonen irudiak hartzea datu-tratamendua izango dela, han dauden pertsonak identifikatzen badira edo identifikagarriak badira; eta, beraz, DBLOn jasotako manuak bete beharko dira.

Horregatik, uste dugu galderari behar bezala erantzuteko, zorrotz aztertu behar dela ea proposatzen den irudien tratamendua ondo ezkontzen datu babesaren arloko funtsezko irizpideekin, hau da, kalitatearen, informazioaren eta adostasunaren printzipioekin.



## II

DBLOk 6. artikulua jaso du datu-babesaren printzipiorik garrantzitsuena: adostasuna. Hona hemen artikuluko 1. Idatz-zatiak dioena:

*“Datu pertsonalen tratamenduak interesdunaren adostasun garbia beharko du, legeak besterik xedatu ezean”.*

Gogora ekarri behar dugu Konstituzio Auzitegiak 2000ko azaroaren 30eko Epaian jaso zuen datu-babeserako eskubidearen definizioa:

*“Datu pertsonalak babesteko eskubidea izateak norberaren datu pertsonalen gaineko boterea izatea eta datu horien gainean erabakiak hartzeko gaitasuna izatea dakar, eta gaitasun horrek ahalmena ematen dio pertsonari honakoak erabakitzeko: ea datu horietatik zeintzuk eman nahi dizkion hirugarren bati, dela Estatu dela partikular bat, eta ea hirugarren horrek datu horietatik zeintzuk bildu ditzakeen; horrez gain, ahalmena ematen dio jakiteko ea datu pertsonal horiek nork dauzkan eta zertarako, eta bere datu pertsonalak inork edukitzearen edo inork erabiltzearen aurka agertzeko ahalmena ere ematen dio. Norberaren datu pertsonalak kontrolatzeko eta horien gaineko erabakiak hartzeko boterea datu babeserako oinarrizko zuzenbidearen edukiaren zati bat da eta botere hori honako gaitasun hauek gauzatzen dute juridikoki: datu pertsonalak biltzeko, eskuratzeko eta atzitzeko adostasuna adierazteko gaitasunak, geroago datu horiekin egiten diren biltegiatzeen eta tratamenduen gaineko adostasuna adierazteko gaitasunak eta hirugarren batek, dela Estatuak dela partikular batek, datu horiekin egin dezakeen edo ditzakeen erabileraren edo erabileren gaineko adostasuna adierazteko gaitasunak (...) (7. lege-oinarriaren 1. paragrafoa)”.*

Beraz, eskubidearen funtsezko alderdietako bat datu pertsonalak biltzeko eta erabiltzeko adostasuna adieraztea da.

Ukituaren baimena edo adostasuna da datu babesaren giltzarria, eta halaxe dago jasota Lege Organikoaren 6. artikulua 1. eta 2. idatz-zatietan:

*“1. Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko, ukituaren zalantzarik gabeko adostasuna beharko da, salbu eta legeak beste zerbait xedatzen duenean”.*

*2. Ukituaren adostasunik ez da behar izango izaera pertsonaleko datuak Administrazio Publikoek euren eskumenen esparruan dagozkien eginkizunak gauzatzeko biltzen direnean; datuak negozio-, lan- edo administrazio-harremanen kontratu edo aurrekontratu etako alderdiei buruzkoak izan eta harreman horiei eusteko zein halako harremanak betetzeko beharrezkoak direnean; datu-tratamenduaren xedea interesdunaren berebiziko interesen bat babestea denean, lege honen 7. artikuluko 6. idatz-zatiaren arabera; edo datuak jendearen esku dauden iturrietara bilduta egon eta datu horien tratamendua beharrezkoa denean fitxategiaren arduradunaren edo datuak komunikatzen zaizkion hirugarrenaren interes legitimoa betetzeko, betiere, interesdunaren oinarrizko eskubide eta askatasunak urratu gabe.”*

DBLOren 6.2 artikuluan ikusten denez, DBLOk dio ez dela interesdunaren adostasunik beharko datu pertsonalak administrazio publikoak euren eskumenpeko eginkizunez baliatzeko biltzen badira. Baina, DBLO garatzen duen Erregelamendua



onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 10.3 a) artikulua xedatzen duenez, ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, baldin eta:

*“a) Datu horiek administrazio publikoek beren eginkizunak aurrera eramateko jasotzen dituztenean, lege mailako arau batek edo zuzenbide komunitarioko arau batek beren esku utzitako eskumenen barruan.”*

Beraz, gerta daiteke interesdunaren baimenik edo adostasunik behar ez izatea, baldin eta kontsulta-egileak egiaztatzen badu ikerketa egiteko eskumena duela lege mailako arau baten bidez edo Europako zuzenbidearen bidez.

Hala ere, eskumen esleipena ez da nahikoa adostasunik gabeko irudien tratamendua legitimatzeko, baldin era tratamenduek ez badituzte beste printzipio batzuk errespetatzen; eta kalitatearen printzipioa da arazotsuena. Kalitatearen printzipioa Datua Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 4. artikuluan xedatuta dago:

*“Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko”.*

Beraz, ez da nahikoa lege mailako arau batek edo Europako zuzenbideak onartutako legeko helburuak izatea, datuak adostasunik edo baimenik gabe bildu ahal izateko. Izan ere, bildu nahi diren datuak nolakoak diren ere hartu behar da kontuan, eta kasu honetan ikasleen irudiak dira.

Edukiak egokia, garrantzitsua eta neurrikoa izan behar du, dagokion helburuarekiko eta esparruarekiko. Jurisprudentzia konstituzionalak manu horri buruz egin duen interpretazioak, hau da, irudiak grabatzeari buruz egin duen interpretazioak agintzen du halakoetan baloratu egin beharko dela, hau da, proportzionaltasunaren irizpidea erabili beharko dela. Konstituzio Auzitegiak dio halako datuen tratamenduak egiteko, hain dienez oinarrizko eskubidearekiko kaltegarriak, proportzionaltasunaren irizpidea ezarri beharko dela, eta, gainera, printzipioaren dimentsio bikoitza erabili beharko dela: egokitasuna eta gutxieneko esku-hartzea. Proportzionaltasunaren printzipioa Konstituzio Auzitegiaren zenbait epaitan agertzen da (37/1998 KAE, 98/2000 KAE, 186/2000 KAE), eta aipatzeko modukoa dela 207/1996 KAEk dioena:

*“... oinarrizko eskubide bat murrizten duen neurri batek proportzionaltasunaren printzipioa hausten duela egiaztatzeko, ondoko hiru eskakizun edo baldintzak betetzen diren ala ez ikusi behar da: “neurri horrekin helburua lortuko ote den (egokitasun irizpena); neurri hori ezinbestekoa ote den eta egiatan ez ote dagoen helburu bera lortzeko beste neurri moderatuagoren bat (premiazkotasunaren irizpena); eta, azkenik, neurrizkoa eta orekatua ote den, interes orokorrari onurak eta abantailak ekarriko dizkiolako, eta abantailak gehiago izango direlako gatazkan dauden beste ondasun edo baloreei ekarri diezazkiokkeen kalteak baino (proportzionaltasun irizpena zentzu hertsian)”.*

Kontsulta-idazkia ikusita, badirudi kontsulta egin duen administrazioak jada egin duela balorazioa; ezen esaten baitu, eta ondo esanda gainera, irudiak disoziatzeko aukera dagoela, eta, horrela, ikasleak ez direla ezagutzeko moduan agertuko. Beraz, ikasleen irudiak disoziatuta hartzea, ikerketa helbururako balio du; aitzitik, irudiak



disoziatu gabe hartuz gero, kalitatearen printzipioa urratu egingo litzateke, gehiegikeria izan litekeelako.

Hona hemen Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko Agentziak berriki argitaratutako artikulua bat. Artikulu horretan osasun datuak ikerketa helburuarekin erabiltzeari buruzko honako ondorioa atera zuen:

*“Aurreko guztia kontuan hartuta, prozesu asistentzian hartutako datuak ikerketa edo irakaskuntza eginkizun baterako erabili ahal izateko, nahitaezkoa izango da aldeztu aurretik disoziazio prozesu bat erabiltzea, datuen jabe den pertsona identifikatzea galarazteko. Edo, bestela, pertsonaren berriazko baimena beharko da. Hala izan ezean, datu tratamendua ez da legezkoa izango, DBLOren printzipioak ez direlako betetzen. Azaroaren 14ko 41/2002 Legeak ezarritakoaren arabera, ikerketa edo irakaskuntza lana egin behar duen pertsonak datuak atzitu aurretik egin beharko da disoziazioa, pertsona horiek ez ditzaten datu guztiak eskuratu, baldin eta ukituaren berriazko baimenik ez badute.”*

Ikusten dugunez, beste kontrol agintaritzak batek ere mediku ikerketen esparruan osasun datuak disoziatu beharra aipatzen du, esparru horretan disoziatu gabeko tratamenduak gehiegizkoak direla esanez.

Gainera, egin nahi den datu tratamenduaren helburua bada “ikasleen eta irakasleen arteko hartu emanak” egiaztatzea, argi dago irudiaz gain, beste datuen bat ere jasoko dela, adibidez, irakasleen eta ikasleen ahotsa. Eta ahotsa ere datu pertsonala da, DBLO garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 5.1 f) artikulua xedatzen duenaren arabera.

Hori hala bada, ahotsaren datuari ere irudien datu tratamenduari ezartzen zaion erregimen bera ezarriko zaio disoziaziorik ez badago: datua bildu aurretik adostasuna edo baimena beharko da, eta ukitua informatu.

## II

Baimenak DBLOk ezarritako betekizun guztiak bete ditzen, hau da, adierazpena edo baimena borondatezkoa, argia, berriazko eta informatua izan dadin (DBLOren 3 h) artikulua), oinarritzko eskubidearen beste funtsezko printzipio bat bete beharko da: Informazioaren printzipioa DBLOren 5. artikuluan dago xedatuta, lehengo idatz-zatian:

*“Datu pertsonalak eskatzen zaizkien interesdunei aurretiaz eta esanbidez informazio zehatza eta zalantzarik gabea eman beharko zaie, ondoko hauen inguruan:*

*Izaera pertsonaleko datuen gaineko fitxategi edo tratamendua, bai eta datu horiek biltzeko xedea eta informazio horren jasotzaileak ere.*

*Egingo zaizkien galderari erantzutea nahitaezkoa edo borondatezkoa den.*

*Datuak lortzearen ondorioak edo datu horiek ez ematearen ondorioak.*



*Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak egikaritzea.*

*Tratamenduaren arduradunaren, edo, hala badagokio, bere ordezkariaren identitatea eta helbidea.*

Informazioaren printzipioak garrantzi handia du, oso lotuta dagoelako adostasunaren printzipioarekin. Izan ere, adostasuna edo baimena borondatezkoa izateko eta oinarri juridikoa izateko, nahitaezkoa da aldez aurretik informazioa ematea, oso zaila delako baimena ematea, baimentzen den tratamenduak zein ondorio dituen jakin ezean. Beraz, geletan egiten den irudien eta soinuen grabazioak datu horien titularrak identifikatzen uzten badute, orduan titularrek edo titularren ordezkariak nahitaez eman beharko dute lehenago baimena, beti ere berariaz eta argi eta garbi jaso badute DBLoren 5.1 artikuluan jasotako alderdi guztiei buruzko informazioa.

Datuak titularrak identifikatu gabe grabatuz gero, ordea, ez zen datu pertsonalik egongo. beraz, tratamenduak ez lituzke DBLoren printzipioak bete beharko, alde batera utzita ikastetxeko bertako antolaketa eta funtzionamendu araudiak esaten duena, hau da, esan dezakeelako ala ez, horrelako jarduerak egiteko aldez aurretik jakinarazi egin beharko direla, eta, nahi izanez gero, parte hartzeari ere uko egin ahal zaiola. Halakoetan Bulegoak ez du zer esanik.

Esandako guztiaren ondorioz, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ondoko erabakia hartu du.

## **ONDORIOA**

Ikasgelan, ikerketa helburuetarako, aldez aurretik disoziatu gabe irudiak eta ahotsa grabatzea datu tratamendu bat da eta DBLoren agindupean dago guztiz. Beraz, nahitaezkoa da aldez aurretik datuen titularren edo titularren legezko ordezkari baimena eskatzea, behar bezala informatu eta gero.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 23a